



## GURE ONDARIA ZAINDDU GURAN

Zergatik aittaketan dogun **Aitta Lasa** Oñatiko patrimoniari eskintzen xau-gun sail honetan? Gerra osteko urte luze eta illunetan haize garbi eta libertade pittin baten billa **Urbixara** igoten ebein mendizaliak ondo dakixe arrazoa: udabarritik udazkenerararte domekero-domekero ikusi geinkien frantziskotar saiatu hau Arantzazutik gora arin asko Urbixarako bidian, hango ermittan mezia emuteko asmotan. Baiña Joxe Iñaxioren helburua etzan hori bakarrik izaten; Urbixa eta inguruak benetan maitte zittualako, paraje horreik eder eta txukun gordetia gura izaten eben. Horretarako lehengo lizarrak zainddu, arbola barrixak sartu, itturrixak jaso, zelaixa garbittu eta bere artikuluen bittartez izadiarentzako maittasuna eta errespetua zabalketan ahaleginddu zan hogetamar urtian baiño gehixaguan.

Artzaiñen eta mendizalien kapellau izatiagatik bihurtu



## JOXE IÑAXIO LASA

xakun ospetsu Aitta Lasa, baiña beste eginkizun batzueiri be makiñatxo bat ordu eskiñi otzan. Adibidez, artxiboetan lotan egozen hainbat datu eta argibide aztertu, kanporatu eta publikau zittuan aldizkari eta liburutan. Sarri askotan ikusten geben Joxe Iñaxio, Tolosako edo Oñatiko Unibersidadeko artxiñuan lanian jardun ondoren, Arantzazurako konbinaziñorik ez eukalako, Portalekuan edo Azkoagaiñen

auto-stop egitten. Ba, antxiñako papeloiri ohostutako albiste eta kontu zaharrai esker hamaika gauza jakin eragin oskun Matxinbetako frailiak: **Gesaltza**, **San Juan Artixa** eta **Arantzazuko** bentetako historixak, **Arrola**, **Ugastegi** edo **Gomistegi** baserrixak noiz jaso ziran, Oñati aldeko kaltzada eta kamiño tradizionalen inguruan sortutako obrak, konponketak, burrukak eta auziak, **Artzanburuko** edurzulua-

ren inportantzia, **Albitxuriko** kortetan baserrixak jaso ziraneko pleittu luze eta korapillotsua eta beste zenbait gauza Arantzazu, Urbixa eta Oñatiren gaiñian.

Dozenerdi bat liburu itxi oskun Joxe Iñaxio Lasak. Hortik aparte hillero argitaraketan eben **ARANZAZU** aldizkarixan Euskal Herriko historixari buruzko artikuluren bat. Lan horreik batuta *Tejiendo Historia* izeneko liburu mardula kaleratu zan 1977xan Donostian. Liburu horretan, bestiak beste, txantxikuarron ondare historiko, artistiko eta etnografikua hobeto ezaguketan lagundu gaikian argibide ugari topau geinke. Hain denbora gutxixan, gure patrimoniari begira, hainbeste gauza inportante galtzen dihardugun sasoi honetan ezin dittugu baztertu Arantzazuko fraile apal honek itxi doskun lanak eta, batez be, ezin dogu ahaztu Joxe Iñaxiok erakutsi oskun naturarentzako eta gure zaharregandik jasotako ondariarentzako errespetua eta estimaziñua.

JERARDO ELORTZA

**TALLERES OLA**

BERGARA  
Tfnoa: 943- 76 33 44 - 46

ARRASATE  
Tfnoa: 943 - 79 05 86

CONCESIONARIO OFICIAL

**ALTUBE ZERBITZUAK**

**MAPFRE**

**GAROA Bidaiak**

**IRADIER**

Portu Kale, 5  
Tfnoak. 78 12 65 78 33 97  
Faxa 78 30 96  
OÑATI